

Zirkunferentziaren diametroa 5 zm da.



Euskara Zerbitzua

Zirkunferentziaren diametroa 5 **zm** da.



Euskara Zerbitzua

Zirkunferentziaren diametroa 5 cm da.



Euskara Zerbitzua

Nazioarteko grafiaz idazten dira sinboloak euskaraz.

Beraz: **cm** eta **cl**

Eta ez: **zm** eta **zl**

Ikus Hiztegi Batua

Hitz osoa idatziz gero: “zentimetro” eta “zentilitro”.



Euskara Zerbitzua

Sinboloak letra xehez idazten dira:

◆ mal	mirialitroa
◆ kl	kilolitroa
◆ hl	hektolitroa
◆ dal	dekalitroa
◆ l	litroa
◆ dl	dezilitroa
◆ cl	zentilitroa
◆ ml	mililitroa

◆ mam	miriametroa
◆ km	kilometroa
◆ hm	hektometroa
◆ dam	dekametroa
◆ m	metroa
◆ dm	dezimetroa
◆ cm	zentimetroa
◆ mm	milimetroa

Pertsona-izenetik etorriak izan ezik, halakoak letra larriz idazten baitira:

◆ J	joulea
◆ Pa	pascala
◆ C	coulomba
◆ Hz	hertza
◆



Euskara Zerbitzua

Halaber, letra arrunta eta latindar grafia erabiltzen dira sinboloak idazteko:

- ◆ mal
- ◆ kl
- ◆ hl
- ◆ dal
- ◆ l
- ◆ dl
- ◆ cl
- ◆ ml

Ez letra etzanez:

- *mal*
- *kl*
- *hl*
- *dal*
- *l*
- *dl*
- *cl*
- *ml*

Ez letra lodiz:

- mal
- kl
- hl
- dal
- l
- dl
- cl
- ml

Erresistentziaren sinboloa salbuespen dugu, grafiari dagokionez:

- ⊕ unitatea: ohm
- ⊕ sinboloa: Ω



Zenbakiaren eta sinboloaren artean zuriunea uzten da:

- ◆ 2 kg
- ◆ 200 m
- ◆ 0,5 J
- ◆ 60 °C

Eta ez:

- 2kg
- 200m
- 0,5J
- 60°C



Euskara Zerbitzua

Sinboloaren ostean ez da punturik jartzen:

- ◆ 2 kg-ko pisua
- ◆ 200 m-ko distantzia
- ◆ 0,5 J-ko indarra
- ◆ 60 °C-ko temperatura
- ◆ 2 kg sagar
- ◆ disolbatu 2 g azukre 10 cl uretan

Eta ez:

- 2 **kg.ko** pisua
- 200 **m.ko** distantzia
- 0,5 **J.ko** indarra
- 60 **°C.ko** temperatura
- 2 **kg.** sagar
- disolbatu 2 **g.** azukre 10 **cl.** uretan



Sinboloa deklinatzean, **UNITATEA** hartu behar da aintzat, eta ez sinboloa:


Honela irakurtzen da:

- ◆ bi kilogramo**ko** pisua
- ◆ bi pascalo**ko** presioa
- ◆ metro bato**ko** distantzia
- ◆ bat koma zero zentimetro**ko** luzera
- ◆ zero koma bost joule**ko** indarra

Honela idazten da:

- ◆ 2 kg-**ko** pisua
- ◆ 2 Pa-**eko** presioa
- ◆ 1 m-**eko** distantzia
- ◆ 1,0 cm-**ko** luzera
- ◆ 0,5 J-**ko** indarra

Marratxoa idazten da sinboloaren eta deklinabide-atzizkiaren artean (ikus adibideak).



Zenbakia letraz adierazten bada, ez dugu sinboloa erabiliko, unitatea baizik:

- ◆ bi kilogramo**ko** pisua
- ◆ bi pascalo**ko** presioa
- ◆ metro bato**ko** distantzia
- ◆ bat koma zero zentimetro**ko** luzera
- ◆ zero koma bost joule**ko** indarra

Eta ez:

- bi kg-ko pisua
- bi Pa-eko presioa
- m bato**ko** distantzia
- bat koma zero cm-ko luzera
- zero koma bost J-ko indarra



Esaldi aurretan, unitatea zenbakirik gabe aipatzen denean, ez da sinbolorik erabili behar:

- ◆ Kalkulatu **metrotan** zer distantzia den A-tik B-ra.

Eta ez:

- Kalkulatu **m-tan** zer distantzia den A-tik B-ra.



Euskara Zerbitzua